

EROSKI-K ETA NAFARROAKO EKONOMIA SOZIALEKO ENPRESEN ELKARTEAK (ANEL) HITZARMEN BAT EGIN DUTE FORU ERKIDEGOAN EKINTZAILETZA KOOPERATIBOA BULTZATZEKO

- **Bi aldeek ekimenak landuko dituzte elkarrekin laguntzeko kooperatibei COALEAren bitartez (Ekintzailletza Kooperatiboko Zentroa). ANELEk eta UCAN Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatiben Batasunak sustatzen dute COALEA.**

Elorrio, 2026ko uztailaren 29a.- [EROSKI](#) enpresa kolaboratzaile moduan sartu da COALEAn, **Ekintzailletza Kooperatiboko Zentroan**, Nafarroako ekintzailletza kooperatiboa bultzatzeko. ANEL Nafarroako Gizarte Ekonomien Enpresen elkartearekin eginiko hitzarmenaren bitartez sartu da. Elkarrekin, ekimenak bultzatuko dituzte kooperatiba berriei laguntzeko: enpresa lankidetzak sustatuko dute, eta eredu kooperatiboa hedatuko dute garapen ekonomiko eta sozialerako motor gisa.

COALEA, ANELEk eta UCANEk sustaturikoa, erreferentziazko espazio bat da ekintzailletza kooperatiborako eta ekonomia sozialeko enpresen arteko lankidetzarako. Ematen dituen zerbitzuen artean daude aholkularitza, prestakuntza, ekintzailletzaren akonpainamendua eta lankidetzarako espazioak, eta xedea du kooperatiba berrien sorkuntza bultzatzea eta daudenak indartzea.

Lankidetzak horri esker, COALEAk bultzaturiko ekimenetan parte hartuko du EROSKI. Ekintzaile interesdunei kooperatiba berriak sortzen laguntzeko ekimenak dira, ezagutzak ez ezik enpresa jardunbide egokiak partekatze eta Nafarroako kooperatiben eta lan arloko sozietateen arteko lankidetzak guneak sustatzeko.

Aurreikusten diren jarduketan artean, aipagarri dira jardunaldiak, tailerrak, esperientziak trukatzeko topaketak eta prestakuntza jarduerak, bai eta sentsibilizazio ekintzak ere, kooperatibismoak enpresa eredu lehiakor eta parte hartzaile modura duen balioa zabaltzeko, betiere garapen iraunkorarekin konprometuta.

Eder Menak, EROSKIren harreman instituzionaletarako arduradunak, honela dio: "Erreferentziazko kooperatiba gisa dugun esperientzia partekatu nahi dugu, eta ekintzaileen zein kooperatiba ekosistemako beste enpresa batzuen eskura jarri berrogeita hamar urtetik gorako ibilbidean eskuratutako ezagutza".

Ignacio Ugalde ANELEko presidentek, berriz, hauxe esan du: "COALEA erreferentziazko gune bihurtu da Nafarroako kooperatibismoarako, eta Eroskiren laguntza aktiboa izateak berretsi egiten du egiten ari garen lan ona; are gehiago indartzen du etorkizuneko enpresa ereduaren alde hartua dugun konpromisoa eta apustua".

Zentroa, halaber, enpresentzat, gizarte erakundeentzat eta erakunde publikoentzat irekitako topagune gisa dago pentsatua, eta kooperatibismoak egiten duen ekarpen ekonomikoa eta soziala balioan jartzen lagunduko duten ekimenak sustatuko ditu.

Hitzarmen honen bidez lankidetzak indartuta, EROSKIk eta ANELEk jarraituko dute foru erkidegoan bultzatzen kooperatibismoa, enplegu egonkorraren sorrera, lurralde sustraitzea eta berrikuntza soziala; aldi berean, helburu izango dute bertako ekintzailak kooperatiboaren ekosistema sendotzea.

EROSKiri buruz

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita optikak, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste jarduerak batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.200 lagunek baino gehiagok osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300, berriz, bazkide eta jabe dira.